

# **Diru-laguntzen Plan Estrategikoa**

## **2019-2021**

---

## AURKIBIDEA

<b>GOGOETA OROKORRAK.....</b>	<b>2</b>
Hitzaurrea .....	2
Araudi-testuingurua .....	3
<b>ZUZENBIDEZKO IZAERA ETA PLANAREN XEDEA .....</b>	<b>4</b>
<b>PLANAREN EDUKIA .....</b>	<b>4</b>
<b>ONARTZEKO AGINPIDEA .....</b>	<b>6</b>
<b>EREMU SUBJEKTIBOA .....</b>	<b>6</b>
<b>DENBORA-EREMUA, INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA .....</b>	<b>6</b>
<b>PLANAREN ALDERDI ESTRATEGIKOAK .....</b>	<b>7</b>
Xedea.....	7
Helburu estrategikoak edo orokorrak .....	7
Printzipio orokorrak .....	8
<b>JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOAK.....</b>	<b>8</b>
<b>ONURADUNAK ETA EMATEKO PROZEDURAK .....</b>	<b>9</b>
Onuradunak .....	9
Emakidari buruzko prozedurak .....	9
<b>ONDORIOAK, EGIKARITZE-EPEAK, AURREZ IKUS DAITEZKEEN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA</b>	<b>10</b>
Ondorioak.....	10
Egikaritze-epeak.....	10
Aurreikus daitezkeen kostuak .....	10
Finantzaketa.....	11
<b>KONTROLA ETA JARRAIPENA.....</b>	<b>11</b>
Plan estrategikoa kontrolatzea .....	11
Plan estrategikoa jarraitzea: Helburuen betetze-mailari buruzko adierazleak .....	12
<b>DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN GARDENTASUNA .....</b>	<b>12</b>
<b>2019-2021 DENBORALDIRAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOAREN</b>	<b>13</b>
<b>ERANSKINA.....</b>	<b>13</b>

## **GOGOETA OROKORRAK**

### **Hitzaurrea**

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzei buruzko orokorrak, zioen azalpenean xedatutakoaren arabera, sektore publikoari dagokion finantza-jardueraren zati garrantzitsua diru-laguntzen bitartez bideratzen da eta finantza-laguntzaren neurrietan oinarrituta, pertsonen nahiz erakunde publiko edo pribatuen gizarte- eta ekonomia-eskeei erantzutea dute helburu.

Ikuspegi ekonomikotik, diru-laguntzak gastu publikoaren modalitate garrantzitsua dira eta, ondorioz, aurrekontu-politikaren gidalerroetara doitu behar dute. Nolanahi ere, gaur egun aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta ekonomia-hazkuntzaren irizpideek gidatzen dute.

Hori abiapuntutzat hartuta, diru-laguntzei buruzko lege orokorra gure sistema ekonomikoa arrazionalizatzeko prozesuan aurrerapausoa da, xede horrez egituratu diren neurri eta berrikuntzen multzoa batu den neurrian.

Legean nagusitzen den printzipio bat, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudian ere jasotakoa, gardentasuna da. Helburu horrekin, administrazioak ematen dituen diru-laguntzak publiko egingo ditu eta, aldi berean, legeak xedatutakoarekin bat, eremu nazionalen datu-basea eratu beharko da, emandako diru-laguntza guztiei buruzko informazio aipagarria izateko.

Gardentasun handiagoak zuzenean diru-laguntzen gastu publikoa kudeatzean eraginkortasuna areagotzen du.

Eraginkortasuna hobetzearen ildotik, 38/2003 Legeak kudeaketa-elementu eta hobekuntza-tresna bezala xedatzen du administrazio publiko bakoitzean diru-laguntzen plan estrategikoa egitea, lortu nahi diren helburuak eta ondoreak kostuekin eta horien finantzaketarekin erlazionatzeko. Helburua eman baino lehen diru-laguntzen bidez behar publikoak baliabide eskuragarrietara egokitzea da.

Gainera, legeak jarraipen-sistema planteatzen du eta, horretarako, helburuak kontrolatu eta ebaluatzen dira. Hala, helburu-maila desiragarria lortzen ez duten diru-laguntzen lerroak aldatu edo ordezkatu ahal izango dira eta eraginkorragoetarantz joko da, hala bidezkoa bada, desagertuko dira. Gauza bera gertatuko da, inbertitutako baliabideen maila egokia ez bada.

Administrazio-ikuspuntutik, diru-laguntzak interes orokorreko portaera zehatzak sustatzeko teknikak dira. Are gehiago, administrazio publiko eta partikularren artean lankidetzaren prozedura bihurtzen dira interes publikoko jarduerak kudeatzeko.

Izaera desberdineko diru-laguntza asko dago eta prozedura konplexuen bitartez ematen dira. Beraz, jarraipen eta kontrol eraginkorrak eskatzen dituzte.

Aurreko guztian funtsatuta, plan estrategikoa diru-laguntzak ematean ardazteko ezinbesteko osagarri modura egituratzen da.

## **Araudi-testuingurua**

Diru-laguntzen plan estrategikoak 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzei buruzkoak, (aurrerantzean DLLO) zioen azalpenean orokorrean xedatutakoan du oinarri. Horrez gain, bereziki, aipatu legeak 8. artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudia onartzen duenak, (aurrerantzean DLAO)10. artikuluan eta hurrengoetan eta 2006ko urriaren 23ko diru-laguntzei buruzko udal-ordenantzak ezarritakoari erreparatu behar zaie.

Administrazio publikoen jardueretan eraginkortasuna hobetzeko kudeaketa-elementu eta tresna bezala, 38/2003 Legeak administrazio bakoitzean diru-laguntzen plan estrategikoa egite behar dela xedatzen du, lortu nahi diren helburu eta ondoreak kostuekin eta beren finantzaketarekin erlazionatzeko. Helburua eman baino lehen diru-laguntzen bidez behar publikoak baliabide eskuragarrietara egokitzea da.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, "diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoen organoek edo bestelako erakundeek diru-laguntza ezarriz lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko beharrezko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzabideak zehaztu beharko dituzte diru-laguntzen plan estrategikoan aldeztu aurretik, betiere aurrekontuaren egonkortasun helburuak betetzearen mende geldituta".

DLLOren 8. artikulua DLLOren araudiak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, 10. artikulutik 15. artikulura bitartean garatzen du. DLPEen printzipio gidariak, eremua eta edukia ezartzen dira, onartzeko eta jarraitzeko aginpidearekin batera.

DLLOren araudi orokorrak 11. artikuluan xedatutakoaren babesean, nolana ere, plan estrategikoak ekitaldi bakoitzean ekonomia-politika eta aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzeko mugetara egokituko dira. Hiru urterako aurreikuspenak izango dituzte. Dena den, inoiz, nahasitako sektorearen izaera bereziarengatik iraupen desberdineko plan estrategikoa definitzea komeniko da.

Era berean, 7/1985 Legeak, tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 4. artikuluan tokiko erakundeei esleitutako araubidezko ahalmenaren arabera, araudi-esparru orokorra hurrengo arau edo tresnekin osatzen da:

- Iurretako Elizateko Udalaren diru-laguntzei buruzko udal-ordenantza, Udalbatzak 2006ko urriaren 23ko bileran hasieran onartutakoa eta 2006ko abenduaren 22ko 243. Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratutakoa.
- Aurrekontua gauzatzeko udal-arauak, ekitaldi bakoitzerako aurrekontuen izapideekin onartutakoak.

Aurrekoarekin bat, diru-laguntzen plan estrategikoa diru-laguntzak ematea proposatu baino lehen egin beharko da eta planteatzen diren proposamenak planean azalduko dira.

Plan estrategiko hau egiteko udal-arlo guztiak parte hartu dute, Iurretako Udalean diru-laguntzak kudeatzean ardura izanez gero.

## **ZUZENBIDEZKO IZAERA ETA PLANAREN XEDEA**

Diru-laguntzen plan estrategikoan honakoak elkartzen dira: batetik, diru-laguntzak eman eta horiek justifikatzeko printzipio orokorrak zehaztea eta, bestetik, jardunean dauden diru-laguntzak kontrolatzeari begira neurriak definitzeko. Hala, ematen direnean, antzemandako desbideratzeak zuzenduz etorkizunekoak hobetuko dira.

Azaldutakotik eta diru-laguntzen plan estrategikoan araututakotik abiatuta, ondoriozta daiteke bere helburua baliabide eskuragarriekin gehieneko eraginkortasuna lortzea dela, baina, horretarako, aurrekontu-eraginkortasunari buruzko printzipioaren mugak errespetatu beharko dira.

Gainera, diru-laguntzen plan estrategikoa kudeaketa-tresna programatiko eta araudi-mailarik gabekoa dela kontuan hartuta, diru-laguntzen onuradunak izan daitezkeenetan ez du zuzeneko eraginik, beraz, horientzat eskubide eta betebeharririk ez du sortzen. Eraginkortasuna diru-laguntzaren lerro desberdinak gauzatzearen mendekoa da eta, besteak beste, ekitaldi bakoitzean aurrekontu eskuragarriari erreparatuko zaie.

Hortaz, plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan ezartzeko, kontsignatze egokiak sartu beharko dira udal-aurrekontuetan, eta bere emakidaren eta agirien arauketa barnean hartzen duten oinarriak onetsi beharko dira.

Une honetan gastua gehiago kontrolatu behar da eta, ondorioz, diru-laguntzen plan estrategikoak sustapen-ekintzaren jarduna arrazionalizatzeko tresna izan behar du. Hala, ekintza mantentzen jarraituko da, baina, aldi berean, eraginkortasun-irizpideak erabiliz baliabideei errentagarritasuna aterako zaie, egoera dela-eta, mugatuak egon baitaitezke.

Diru-laguntzen plan estrategikoa politika publikoak egin eta esleituak dituen helburuak lortzeari begira, baliabide ekonomikoak arrazionalki banatzeko kudeaketa publikoaren tresna eraginkor modura egituratu ostean, Iurretako Udalak sail desberdinen bidez aurrekontuetako diru-laguntzen lerro desberdinak sistematizatu nahi ditu, planaren ebaluazio- eta jarraipen-txostenak erabiliz etorkizunean egungo diru-laguntzen politika ebaluatzeko.

## **PLANAREN EDUKIA**

Edukiak araudiak 12. artikuluan xedatutakoa bete beharko du. Nolanahi ere, horrek ere ebaluazioa eta jarraipena aurrez ikusten ditu. Aurrekoari eutsiz, artikulua hala dio:

“1. Plan estrategikoen hurrengo edukia izango dute:

a) **Helburu estrategikoak:** planaren indarraldian erakunde-jardunarekin lortu nahi diren ondorea eta eragina deskribatzen dituzte eta aurrekontu-programetan definitutako helburuekin zerikusia izango dute. Helburu estrategikoen merkaturan eragiten dutenean, zuzendu nahi diren hutsak identifikatu beharko dira, diru-laguntzei buruzko lege orokorrak 8. artikuluko 2. atalean aurrez ikusten dituen ondorioekin.

b) Jarduera-planak dituen **diru-laguntzaren lerroak**. Diru-laguntzaren lerro bakoitzerako ondorengo alderdiak azalduko dira:

1. Nahasitako aginpide-arloak eta laguntzen sektore hartzaileak.
2. Aplikatuz lortu nahi diren helburu eta ondorioak.
3. Lortzeko epea.
4. Egiteko kostu zenbatetsiak eta finantzaketa-iturriak; administrazio publikoen, Europar Batasunaren eta bestelako organo publiko edo pribatuen ekarpenak zehaztuko dira, sustapen-ekintzetan parte hartzen badute. Halaber, osagarritasunaren printzipioa kontuan hartuta, diru-laguntzen onuradunei dagozkienak ere azalduko dira.
5. Ekintza-plana: planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak praktikan jartzeko mekanismoak zehaztuko dira, baita diru-laguntzen oinarri arautzaileek izan behar dituzten funtsezko lerroak, gauzatze-egutegia eta, bidezkoa bada, kudeatzeko administrazio publikoen artean koordinazio-irizpideak mugatu ere.

c) **Etengabeko jarraipen- eta ebaluazio-araubidea**, diru-laguntzen lerro desberdinei aplikatuko zaiena. Xede horrez, diru-laguntzaren lerro bakoitzerako planaren helburuarekin zerikusia duen adierazleen multzoa definituko da eta aldizka jarraipenaren arduradunek jasoko dituzte, helburuak betetzeari begira, egoera eta aurrerapausoak ezagutzeko.

d) Aurreko plan estrategikoak aztertu ostean, **ebaluazioaren emaitzak**. Horietan egindako txostenen edukia jakinaraziko da.

2. Plan estrategikoaren edukia helburuen, kostuen eta finantzaketa-iturrien azalpen-txostena egitera murriz daiteke, diru-laguntzak zuzenean ematen badira, diru-laguntzei buruzko lege orokorrak 22.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. Diru-laguntzen plan estrategikoak programak dira eta edukiak ez ditu eskubideak eta betebeharrak sortzen. Eraginkortasuna diru-laguntza lerro desberdinak praktikan jartzearen araberakoa da eta, besteak beste, ekitaldi bakoitzean aurrekontu eskuragarriari erreparatuko zaio”.

2019-2021 denboraldirako Iurretako Udalaren diru-laguntzei buruzko plan estrategikoa “2019-2021 denboraldirako diru-laguntzen plan estrategikoarekiko eranskinean” dago eta hurrengoak zehazten dira:

- Helburu estrategikoak.
- Nahasitako eskumen-arloak.
- Aplikatuz lortu nahi diren helburu eta ondorioak.
- Denboraldi-eremua/Lortzeko epea.
- Kostu zenbatetsiak eta finantzaketa-iturriak.
- Ekintza-plana.
- Jarraipen- eta ebaluazio-araubidea.

- Emakida erregimena / modalitatea.
- Onuradunak / hartzaileak.
- Kreditu-izendapena aurrez ikusten duen aurrekontu-aplikazioa.

### **ONARTZEKO AGINPIDEA**

Diru-laguntzen plan estrategikoa onartzeko organo eskuduna alkatea da, diru-laguntzen jarduera estrategikoki planifikatzeko eta kudeaketa ekonomikoa sustatzeko tresna baita, tokiko araubideari buruzko oinarrien legeak 21.1.s artikuluan xedatutakoarekin bat.

Onartutakoan udalaren web orriko gardentasun-atarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da aditzera emateko.

### **EREMU SUBJEKTIBOA**

Iurretako Udaleko diru-laguntzen plan estrategikoak udalak udal-sail desberdinen bidez zuzenean emandako diru-laguntzak guztiak ditu.

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzei buruzko orokorrak, 2.2. artikuluan xedatutakoaren babesean, plan honen barruan ez daude sartuak Iurretako Udalak beste administrazio publiko batzuei egiten dizkien diru-ekarpenak orokorrean administrazioaren jarduera finantzatzeko, diru-laguntzak ez baitira. Kasu honetan, udalak Durangoko Mankomunitateari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta, bidezkoa bada, beste udal batzuei egiten dizkie ekarpenak.

### **DENBORA-EREMUA, INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA**

Planak hiru urteko indarraldia du eta 2019-2021 denboraldian zehar zabalduko da, alde batera utzi gabe diru-laguntzen lerro batzuk indarraldi laburragoa izatea.

Hala eta guztiz ere, urtero, jarraipen-txostenak ikusirik eta aurrekontu eskuragarriak kontuan hartuta, diru-laguntzen lerroak alda, ordezkia edo ezaba litezke.

Lerro bakoitzean helburuak lortu edo inbertitutako baliabideak egokitzeari dagokionez, jarraipen-txosteneko emaitzak aztertu ostean, edukiaren edozein alderdi egunera edo alda daiteke. Gauza bera egiteko aukera dago arrazoiak behar bezala justifikatzen badira.

Bestalde, aurrekontu-aldaketaren bat egin nahi bada eta, bide batez, diru-laguntzen plan estrategikoak aurrez ikusten ez duen diru-laguntzaren lerroren bat sartu ere bai, aldeztatik edo aldi berean aldatu beharko da plana. Ez da diru-laguntzen plan estrategikoa aldatu beharko, bakarrik esleitutako zenbateko desberdina jartzeko dauden diru-laguntzen lerroak aldatu behar badira, betiere gainerako osagaiak aldatu gabe mantenduz gero. Ildo horri jarraiki, espedientean egiaztatu beharko du arlo kudeatzaileak.

## **PLANAREN ALDERDI ESTRATEGIKOAK**

### **Xedea**

Udalaren diru-laguntzen jarduera-multzoak honako xedea du:

“Udal-kudeaketaren eremu interesgarrietan gure udalerriko gizarte zibil egituratuaren partaidetza bultzatu, sustatu eta sendotzea eta aukera-berdintasunaren printzipioa defendatzeko, gizarte-kalteberaren egoera zehaztetan dauden herritarrei laguntza ekonomikoak emanez indibiduen gizarteratzea sustatzea”.

### **Helburu estrategikoak edo orokorrak**

Diru-laguntzat hartzen dira, plan honen ondoreetarako, Udalak pertsona publikoen edo pribatuen ala nortasun juridikorik ez duten erakundeen alde emandako diru-baliabide guztiak, honako baldintzak betetzen badituzte:

a) Diru-laguntza jasotzearen truke onuradunek ez dute zuzeneko kontraprestaziorik egin beharko.

b) Diru-laguntza helburu zehatz bat betetzeari lotuta egongo da, proiektu baten ekexuzioa, ekintza bat burutzea, jokabide berezi bat hartzea, jada burutua ala burutzeke dagoena, edota egoera bati lotuta egotea. Hala, ezarritako betebeharrak formal eta materialak bete beharko ditu onuradunak.

c) Diruz lagundutako proiektuak, ekintzak edo egoerak erabilera publikoko edo interes soziala duen ekintza baten sustapena edo helburu publiko baten promozioa xede izatea.

Lehentasunezko helburuei dagokienez, erabilgarritasun publikoko edo gizarte-intereseko jarduera-mota guztiak sustatzen dituztenak sartzen dira, baita helburu publikoa bultzatzen dutenak ere, betiere irabazi-asmorik gabe egiten badira eta etekin ekonomiko urria duten jarduerak garatzean eta sustatzean lankidetzan aritzen bada. Horrez gain, udal-jardunean herritarren elkarre- eta partaidetza-sareak sortzea indartuko dute.

2019-2021 denboraldirako Iurretako Udalaren plan estrategikoaren eta diru-laguntza nahiz laguntzen lerroen helburu orokorrak honakoak dira:

- 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, 8.1. artikuluan jasotzen duen legezko manua betetzea. Horren arabera, udalek diru-laguntzak eman baino lehen plan estrategikoa onartu beharko dute.
- Udaleko sailen laguntza eta diru-laguntzen linea eta programa anitz eta ezberdinen multzorako gauzatze-printzipio eta -oinarri erkideak ezarri eta normalizatzea.
- Diru-laguntzen udal-kudeaketa hobetu eta arrazionalizatzea eta, horretarako, laguntzen lerroak kudeatzean zeharkakotasunaren, eraginkortasunaren eta efizientziaren alderdiak balioztatzea.
- Oro har, udalak izapidetu behar baditu, diru-laguntzen emakidak eta justifikazioak bete behar duten erregimena arautzea.



### **Printzipio orokorrak**

Diru-laguntzen eta administrazio publikoen arloan lege-arautegiak jarduera-printzipio orokorrak xedatzen ditu eta plan estrategikoaren oinarritzko elementuak dira, beraz, diru-laguntzen eremuan udal-kudeaketa zuzendu behar dute. Horiek honako hauek dira:

Publizitatearen printzipioa: Aipatu printzipioa ondorengo bidez gauzatzen da: deialdiaren publizitatea bermatzeko aurretiazko deialdia eta emandako diru-laguntzak iragartzea, zuzenean eman daitezkeenak baztertu gabe, 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru-laguntzei buruzko orokorrak, udaleko aurrekontua gauzatzeko oinarriak eta gainerako araudi aplikagarriak xedatutakoarekin bat.

Lehia askerako printzipioa: Printzipioa burutzeko, onuradunek bete behar dituzten baldintzak zehazten dira eta baldintza berdinean daudenei ez zaie lortzea mugatuko. Hala, funts publikoak banatzean lehia eta berdintasuna bermatuko dira, arau aplikagarriak xedatutakoaren arabera, zuzenean ematea baztertu. Hala ere, alde aurretik aurrekontu eskuragarria beharko da.

Objektibotasunaren printzipioa: diru-laguntzak deialdian alde aurretik ezarritako irizpide objektiboekin bat etorri emango dira, onuradun izan daitezkeenak alde aurretik horien berri dutela bermatzeko.

Gardentasunaren, berdintasunaren eta ez-diskriminazioaren printzipioak baliabide publikoak esleitzean. Printzipioa gauzatzeko, lehiaren, objektibotasunaren eta publizitatearen printzipioei erreparatuko zaie, alde batera utzi gabe zuzeneko emakidetan legezko ustekoak aplikatzea.

Eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak: emandako diru-laguntzak jarraitu eta kontrolatzeko prozeduran ezartzen diren helburuak betetzeko orduan eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzean efizientzia. Hala, diru-laguntzak baloratu eta proiektu eraginkorrenei esleituko zaizkie. Gainera, jasotako diru-laguntzak kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu beharko dira.

Aurrekontu-egonkortasunari eta gastu-arauari egokitzearen printzipioa: diru-laguntzak ematean aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioa kontuan hartuko da, 2/2012 Lege Organikoak, apirilaren 27koak, aurrekontu-egonkortasun eta finantza-iraunkortasunari buruzkoak, aurrez ikusitako baldintzetan.

Diruz lagundutako jarduerak garatzean erakunde eskatzaileek berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioekin bat egiten duten helburuak egoki betetzen dituztela kontrolatu eta aztertzearen printzipioa.

### **JARDUTEKO ILDO ESTRATEGIKOAK**

Jarduteko lerro estrategikoak, plan estrategiko honek jasotzen dituenak, laburbilduz, arloka ondoren zehaztutakoak dira. Hala eta guztiz ere, xehetasun handiagoa ageri da dagokion eranskinean.

- **1. ildo estrategikoa: etxebizitza, hirigintza, ingurumena eta osasun publikoa**

- 2. ildo estrategikoa: ekonomi sustapena
- 3. ildo estrategikoa: gizarte-ekintza
- 4. ildo estrategikoa: kultura, aisialdia eta jai-jarduerak
- 5. ildo estrategikoa: kirol-sustapena
- 6. ildo estrategikoa: hezkuntza eta euskararen normalizazioa
- 7. ildo estrategikoa: garapenerako kooperazioa, berdintasuna eta gizarte-partaidetza

## **ONURADUNAK ETA EMATEKO PROZEDURAK**

### **Onuradunak**

Diru-laguntzen onuraduna izango da jarduera egin eta diru-laguntza jasotzeko zioak oinarritzen dituen edo diru-laguntzaren emakida legitimatzen duen egoeran dagoen pertsona edo erakundea.

### **Emakidari buruzko prozedurak**

Iurretako Udalak diru-laguntzak eremu horretan indarreko araudiak xedatzen dituen baldintzetan emango dizkie, oro har, norgehiagokaren araubidean deialdi publikoaren bitartez edo zuzeneko emakidaz, pertsona fisiko edo pribatuei, publiko ala pribatuei, ondasunen erkidegoei edo bestelako edozein ekonomi edo ondare mota bereziri, nortasun juridikorik ez izan arren, diru-laguntzaren xede diren proiektuak edo jarduerak ala portaera gauzatzen badituzte.

Jarduerak udaleko aurrekontu orokorren kargura diru-laguntza edo laguntza jasotzeko, honako helbururen bat izango du:

- Udal-aginpidetako helburuak osatu, sustatu edo ordezkatu ala horiei lagundu edo zerbitzatzea.
- Gizarte-intereseko jarduera sustatzea.
- Elkarteak bultzatzea, beren helburua biztanleen interes orokorrak edo sektorialak defendatzea bada.
- Gizarte-egoera kaltebera zehaztuta dauden herritarrei laguntza ekonomikoen bitartez gizarteratzen laguntzea, aukera-berdintasunaren printzipioa defendatzeko.

Diru-laguntzak emateko, hurrengo prozedura-motak daude:

- Norgehiagokan emandako diru-laguntzak.
- Diru-laguntza nominatiboak, aurrekontuan aurrez ikusitakoak.
- Interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioa dela bide, edo behar moduan justifikatutako zuzeneko diru-laguntzak, deialdi publikoa egiteko zailtasunak daudenean.

- Diru-laguntza hauetan Iurretako Udalak lege-maila duen arauaren bidez ezarriko du emateko modua edo zenbatekoa. Halakoetan, araudiak berak xedatutakoaren arabera, emateko prozedura aplikagarriari erreparatuko zaio.

## **ONDORIOAK, EGIKARITZE-EPEAK, AURREZ IKUS DAITEZKEEN KOSTUAK ETA FINANTZAKETA**

### **Ondorioak**

Plan estrategikoak zenbait jarduera bideratu eta garatu nahi ditu, udalerriko gizarte-sektore desberdinek proiektuak gara ditzaten eta, bide batez, mota guztietako beharrak (sozialak, profesionalak, aisialdikoak) ase daitezten. Horregatik, diru-laguntzekin ondorengoak lortu nahi dira:

- Interes orokorreko jarduerak egin daitezten sustatzea, interes publikoko jarduerak kudeatzean tokiko erakundearen nahiz partikularren artean lankidetzan aritzeaz gain.
- Udal-kudeaketaren eremu interesgarrietan gure udalerriko gizarte zibil egituratuaren partaidetza bultzatu, sustatu eta sendotzea eta aukeraberdintasunaren printzipioa defendatzeko, gizarte-kalteberaren egoera zehaztetan dauden herritarrei laguntza ekonomikoak emanez indibiduen gizarteratzea sustatzea.

Diru-laguntzen plan estrategikoa onesteak ez du esan nahi onuradun izan ahal direnen aldeko eskubideak sortuko direnik. Ezin izango dute kalte-ordainik edo kontentsaziorik eskatu plana bere baldintzen arabera gauzatzen ez bada.

Era berean, interes orokorreko edozein jarduera sustatzera bideratutako ekintzak kontuan hartuko dira eta, horretarako, diru-laguntzetarako urtero udal-aurrekontuan esleitzen diren funtsak bideratuko dira.

### **Egikaritze-epeak.**

Oro har, udalaren diru-laguntzek urtebeteko egikaritze-epea izango dute eta justifikatzeko urte naturala hautatuko da.

Egoera kontuan hartuta, egikaritze-epeak urtebetetik gorakoa izan behar badu edo justifikatze-epea aldatu behar bada, diru-laguntzen oinarrietan azalduko da. Dena den, urtero bete beharko dira indarreko legediak xedatutako baldintzak.

### **Aurreikus daitezkeen kostuak**

Plan estrategiko honek aurrez ikusten dituen diru-laguntzak eraginkortasunez zehazteko, urtero udal-aurrekontuan kredituak sartuko dira eta, bidezkoa bada, norgehiagokaren kasuan diru-laguntzen deialdia arautzeko oinarriak edo, kasu berezietan, emateko oinarri arautzaileak dituzten ordenantzak ala zuzeneko emakiden erabakiak onartu ere bai.

Diru-laguntza ematea honakoaren arabera izango da: aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren printzipioak betetzea.

Kasu bakoitzean, kostuak Iurretako Udalaren aurrekontu orokorrean urtero finkatzen den zenbatekora mugatuko dira.

Ezin izango da finkatutakoa baino kopuru handiagoko diru-laguntzarik eman. Nolanahi ere, kredituak mugatzaileak eta lotesleak dira, beraz, zenbatekoa gainditzen duten gastuen konpromisoak ezingo dira onartu.

### **Finantzaketa**

Plan estrategikoa aipatzen dituen diru-laguntzak udal-aurrekontuaren kredituen kargura finantzatuko dira eta horretan zehazten diren aurrekontu aplikazioetan izendatuko dira.

## **KONTROLA ETA JARRAIPENA**

### **Plan estrategikoa kontrolatzea**

Iurretako Udalaren diru-laguntzei buruzko plan estrategikoa urtero kontrolatu eta jarraituko da bi alderditan:

- 1. Ekonomi - finantza kontrola**, emandako diru-laguntzena, Iurretako Udalaren Kontu-hartzailetzaren ardurapean. Baldintzak indarreko legerian daude eta prozedurak Kontu-hartzailetza orokorrak zehaztuko ditu.
- 2. Plana kontrolatu eta jarraitzea** Plan estrategikoa ikuskatu behar da honako helburuak betetzeko:
  - Indarraldia galdu badute edo helburuak bete ditzaten eraginkorrak ez badira, diru-laguntzen lerroak aldatu eta eguneratzeko.
  - Mantentzen direnen zenbatekoak eguneratzeko.
  - Aldez aurretik zehaztutako helburuak lortzeko beharrezkotzat jotzen badira, jarduera-lerro berriak sartzeko.

Plana jarraitzea eskatzen zaion udal-arloari urtero jarraituko du. Xede horrez, arlo bakoitzak hurrengo ekitaldiko lehenengo lauhilekoan justifikazio-txostena bidaliko du eta hurrengo zehaztapenak erantsiko dira:

- Diru-laguntza-lerro eta -mota bakoitzaren informazioa: emandako diru-laguntzak, justifikatuak, uko egindakoak eta itzultitakoak (edo itzultze-prozeduran).
- Helburu berezien eta egikaritze-eparearen betetze-maila. Xede horrez, diru-laguntzaren lerro bakoitzeko helburuen betetze-mailari buruzko adierazleak zehaztu beharko dira.
- Plana aplikatzearen ondorioz, aurrekontu- eta finantza-ondoreak.

- Ondorioak edo balioztapen orokorra.
- Hurrengo diru-laguntzen plan estrategikoa egiteko iradokizunak.

#### **Plan estrategikoa jarraitzea: Helburuen betetze-mailari buruzko adierazleak**

Lerro bakoitzerako zehaztutako adierazleak aurreko ekitaldian lortutako adierazleekin alderatuko dira eta helburua betetzat joko da aldaketak % 10 gainditzen ez duenean (-% 10).

Diru-laguntzaren lerroek batez beste azkeneko hiru ekitaldietan % 10 gainditzen badute, aldatu edo deuseztatzea balioztatuko da. Hortaz, mantenduz gero, justifikatu beharko da.

#### **DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN GARDENTASUNA**

Gardentasunaren printzipioa betetzeko, udalak lerro estrategiko, laguntza-programa eta deialdi bakoitzean emandako diru-laguntzak urtero udalaren web orrian eta diru-laguntzei buruzko datu-base nazionalean argitaratuko dira, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak 20. artikuluan xedatutakoarekin bat. Erakunde hartzailea, zenbatekoa eta proiektu edo ekintza hartzailea azalduko dira. Xede horrez, informazioa bidaltzeko arlo arduraduna eta gauzatzeko prozedura zehaztuko dira.

**2019-2021 DENBORALDIRAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO PLAN ESTRATEGIKOAREN  
ERANSKINA**

## 1. HELBURU ESTRATEGIKOA: Etxebizitza, hirigintza, ingurumena eta osasun publikoa

<b>Helburu estrategikoak</b>	Garapen iraunkorretik abiatuta, ingurumenari eta elkartasunari begira, Iurreta udalerrri osasuntsu, adeitsu, irisgarri eta konprometituagoa izaten laguntzea.
<b>Helburu zehatzak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Egoitza-erakinetan irisgarritasuna hobetzea.</li> <li>2. Udalerriko ingurune publikoaren kontserbazio-egoera, mantentze-lanak eta apaindura hobetzea.</li> <li>3. Landa-inguruneetan ingurumena babestea.</li> <li>4. Herritarren artean osasunaren sustapen-jarduerak garatzen laguntzea eta osasunean desberdintasunak gutxitzea ahalbidetzen duten taldeekin jarduerari lehentasuna ematea.</li> </ol>
<b>Jarduera-planak dituen diru-laguntzaren lerroak</b>	<p>LS1. Fatxadak eta estalkiak birgaitzeko laguntza.</p> <p>LS2. Bizitegi-erakinetan hesi arkitektonikoak deuseztatzea.</p> <p>LS3. Landa-inguruneetan puntu septikoak instalatzeko diru-laguntza.</p> <p>LS4. Landa-inguruneetan puntu septikoak garbitzeko diru-laguntza.</p> <p>LS5. Osasuna sustatzeko programei laguntzea.</p>

LS1. Fatxadak eta estalkiak birgaitzeko laguntza.

Nahasitako eskumen- <b>arloak</b> .	HIRIGINTZA
Laguntzen <b>sektore</b> hartzaileak.	Bizitegi-eraikinetako pertsona fisiko edo juridiko jabeak, esku hartu behar badute eta jabeen erkidegoak, elementu erkideak direnean.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>helburuak</b> .	Udalerriko ingurune publikoaren kontserbazio-egoera, mantentze-lanak eta apaindura hobetzea, bizitegi-erabilerako eraikin kolektiboetan.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>ondorioak</b> .	Bizitegi-eraikinetan segurtasun-baldintzak mantentzea.
Egikaritze- <b>epea</b> .	Zehaztu gabe
Aurrez ikus daitezkeen <b>kostuak</b> eta finantzaketa- <b>iturriak</b> .	Aurrekontua: 2019 2020-2021 aurreikuspena: 25.000 euro (1522.48100 aurrekontu-partida)
<b>Ekintza-plana</b> , horretan planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak abian jartzeko mekanismoak zehaztuko dira.	Alkateak irailean urteko deialdia onartuko du. Eskakerak forman aurkeztuz gero, alkatezaren dekretuaren bidez laguntzak emateari buruz ebatziko da. Diruz lagundutako jardura justifikatzeari begira, obra amaitzean aurkeztuko da eta justifikazio-kontuaren forma hartuko du. Nagusiki, faktura originalek osatuko dute.
<b>Etengabeko jarraipen- eta ebaluazio-araubidea</b> , diru-laguntzen lerro desberdinei aplikatuko zaiena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diru-laguntzarekin egitura-elementuak konpondu diren bizitegi-eraikinen kopurua.</li> <li>- Diruz lagundutako obraren batez besteko kostuaren ehunekoa.</li> </ul>
Aurreko plan estrategikoak aztertu ostean, <b>ebaluazioaren emaitzak</b> . Horietan egindako txostenen edukia jakinaraziko da.	Ez dago eskura.



LS2. Bizitegi-eraikinetan hesi arkitektonikoak deuseztatzea.

Nahasitako eskumen- <b>arloak.</b>	HIRIGINTZA
Laguntzen <b>sektore</b> hartzaileak.	Bizitegi-eraikinetako pertsona fisiko edo juridiko jabeak, esku hartu behar badute eta bizitegi-eraikinetako jabeen erkidegoak.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>helburuak.</b>	Bizitegi-eraikinetan irisgarritasuna hobetzea.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>ondorioak.</b>	Eraikinean bizi diren pertsonen beren etxebizitzetara irisgarritasun-baldintzak bermatzea.
Egikaritze- <b>epea.</b>	Zehaztu gabe
Aurrez ikus daitezkeen <b>kostuak</b> eta finantzaketa- <b>iturriak.</b>	Aurrekontua: 2019 2020-2021 aurreikuspena: 25.000 euro (1522.48100 aurrekontu-partida)
<b>Ekintza-plana</b> , horretan planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak abian jartzeko mekanismoak zehaztuko dira.	Alkateak irailean urteko deialdia onartuko du. Eskakerak forman aurkeztuz gero, alkatearen dekretuaren bidez laguntzak emateari buruz ebatziko da. Diruz lagundutako jardura justifikatzeari begira, obra amaitzean aurkeztuko da eta justifikazio-kontuaren forma hartuko du. Nagusiki, faktura originalek osatuko dute.
<b>Etengabeko jarraipen- eta ebaluazio- araubidea</b> , diru-laguntzen lerro desberdinei aplikatuko zaiena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diru-laguntzarekin hesi arkitektonikoak deuseztatu diren bizitegi-eraikinen kopurua.</li> <li>- Diruz lagundutako hesi arkitektonikoak deuseztatzeagatik pertsona onuradunen kopurua.</li> <li>- Hesiak deuseztatzeko diru-laguntza jaso duen mota bakoitzean jardura kopurua.</li> </ul>
Aurreko plan estrategikoak aztertu ostean, <b>ebaluazioaren emaitzak.</b> Horietan egindako txostenen edukia jakinaraziko da.	Ez dago eskura.

LS3. Landa-inguruneetan puntu septikoak instalatzeko diru-laguntza.

Nahasitako eskumen- <b>arloak</b> .	INGURUMENA
Laguntzen <b>sektore</b> hartzaileak.	Landa-ingurunean baserrien eta familia bakarreko etxebizitzaren pertsona fisiko jabeak, saneamendu publikoen sareak ez badituzte.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>helburuak</b> .	Natur ingurunean edonola ez isurtzea.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>ondorioak</b> .	Baserri eta familia bakarreko etxebizitzaren guneen inguruan osasungarritasuna hobetzea.
Egikaritze- <b>epea</b> .	Zehaztu gabe
Aurrez ikus daitezkeen <b>kostuak</b> eta finantzaketa- <b>iturriak</b> .	Aurrekontua: 2019 2020-2021 aurreikuspena: 15.000,00 euro (1722.78000 aurrekontu-partida).
<b>Ekintza-plana</b> , horretan planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak abian jartzeko mekanismoak zehaztuko dira.	Alkateak irailean urteko deialdia onartuko du. Eskerak forman aurkeztuz gero, alkatearen dekretuaren bidez laguntzak emateari buruz ebatziko da. Diruz lagundutako jarduerak justifikatzeari begira, eskaerarekin batera aurkeztuko da eta justifikazio-kontuaren forma hartuko du. Nagusiki, faktura originalek osatuko dute.
<b>Etengabeko jarraipen- eta ebaluazio- araubidea</b> , diru-laguntzen lerro desberdinei aplikatuko zaiena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Instalatu den baserri edo familia bakarreko etxebizitzaren kopurua.</li> <li>- Putzu septiko berria instalatzeagatik pertsona onuradunen kopurua.</li> </ul>
Aurreko plan estrategikoak aztertu ostean, <b>ebaluazioaren emaitzak</b> . Horietan egindako txostenen edukia jakinaraziko da.	Ez dago eskura.

LS4. Landa-inguruneetan puntu septikoak garbitzeko diru-laguntza.

Nahasitako eskumen- <b>arloak</b> .	INGURUMENA
Laguntzen <b>sektore</b> hartzaileak.	Landa-ingurunean baserrien eta familia bakarreko etxebizitzaren pertsona fisiko jabeak, saneamendu publikoen sareak ez badituzte.
Aplikatzeko lortu nahi diren <b>helburuak</b> .	Garbiketa-maiztasun egokiarekin dauden putzu septikoak hobetzea.
Aplikatzeko lortu nahi diren <b>ondorioak</b> .	Baserri eta familia bakarreko etxebizitzaren guneen inguruan osasungarritasuna hobetzea.
Egikaritze- <b>epea</b> .	Zehaztu gabe
Aurrez ikus daitezkeen <b>kostuak</b> eta finantzaketa- <b>iturriak</b> .	Aurrekontua: 2019 2020-2021 aurreikuspena: 5.000 euro (1722.48000 aurrekontu-partida)
<b>Ekintza-plana</b> , horretan planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak abian jartzeko mekanismoak zehaztuko dira.	Alkateak irailean urteko deialdia onartuko du. Eskerak forman aurkeztuz gero, alkatearen dekretuaren bidez laguntzak emateari buruz ebatziko da. Diruz lagundutako jarduerak justifikatzeari begira, eskaerarekin batera aurkeztuko da eta justifikazio-kontuaren forma hartuko du. Nagusiki, faktura originalek osatuko dute.
<b>Etengabeko jarraipen- eta ebaluazio- araubidea</b> , diru-laguntzen lerro desberdinei aplikatuko zaiena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Putzu septikoa garbitu duten baserri edo familia bakarreko etxebizitzaren kopurua.</li> <li>- Putzu septikoa garbitzeagatik pertsona onuradunen kopurua.</li> </ul>
Aurreko plan estrategikoa aztertu ostean, <b>ebaluazioaren emaitzak</b> . Horietan egindako txostenen edukia jakinaraziko da.	Ez dago eskura.

LS5. Osasuna sustatzeko programei laguntzea.

Nahasitako eskumen- <b>arloak</b> .	OSASUN PUBLIKOA
Laguntzen <b>sektore</b> hartzaileak.	Irabazi-asmorik gabeko erakundeak, osasunari buruz elkartasun-ohiturak eta sentsibilizazioa sustatu eta horretara animatzen badute.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>helburuak</b> .	Herritarren artean osasunaren gaietan sustapen- eta sentsibilizazio-jarduerak garatzen laguntzea.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>ondorioak</b> .	Osasunaren arloan herritarren elkartasuna hobetzea eta desberdintasunak murriztea.
Egikaritze- <b>epea</b> .	Zehaztu gabe
Aurrez ikus daitezkeen <b>kostuak</b> eta finantzaketa- <b>iturriak</b> .	Aurrekontua: 2019 2020-2021 aurreikuspena: <ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>EMOIXU</b> 500,00 euro (231.48101 aurrekontu-partida).</li> <li>- <b>AECC</b> 250,00 euro (231.48108 aurrekontu-partida)</li> </ul>
<b>Ekintza-plana</b> , horretan planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak abian jartzeko mekanismoak zehaztuko dira.	Udal-aurrekontua eta diru-laguntza nominatiboak onartzen direnean, hitzarmena egingo da baldintzak finkatzeko, bai egiteari dagokionez, bai laguntza ordaintzeko erakunde onuradunek bete behar dutenari buruz. Bi aldeek onartu eta sinatzen dutenean, ordainduko da hitzarmenean aurrez ikusitako moduan. Programa gauzatu ostean, erakundeak diru-laguntza justifikatu beharko du hitzarmenean aurrez ikusitakoaren arabera.
<b>Etengabeko jarraipen- eta ebaluazio- araubidea</b> , diru-laguntzen lerro desberdinei aplikatuko zaiena.	- Diruz lagundutako programetan partaideen kopurua. - Laguntzaren erakunde onuradunek egindako ekintza-kopurua.
Aurreko plan estrategikoak aztertu ostean, <b>ebaluazioaren emaitzak</b> . Horietan egindako txostenen edukia jakinaraziko da.	Ez dago eskura.

## 2. HELBURU ESTRATEGIKOA: Ekonomi sustapena

<b>Helburu estrategikoak</b>	Iurretako gizarte- eta ekonomia-garapenari laguntzea eta, horretarako, merkataritza, enpresak eta turismoa sustatzea.
<b>Helburu zehatzak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hurbileko merkataritzari laguntzea.</li> <li>2. Ekonomi dinamizazioa bultzatzen duten enpresa- eta merkataritza-jarduera berriak ezar daitezen sustatzea.</li> </ol>
<b>Jarduera-planak dituen diru-laguntzaren lerroak</b>	<p>LS1. Tokiko merkataritza babestea.</p> <p>LS2. Enpresa-proiektuen lehiaketa</p>

LS1. Tokiko merkataritza babestea.

Nahasitako eskumen- <b>arloak</b> .	GOBERNAMENDUA
Laguntzen <b>sektore</b> hartzaileak.	Iurretan egoitza duten komertzioak edota ostalaritza-jarduerak.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>helburuak</b> .	Merkataritza-gune handien aldean, tokiko komertzio txikiek bizirik iraun dezaten laguntzea.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>ondorioak</b> .	Hurbileko tokiko komertzio txikia bermatzea.
Egikaritze- <b>epea</b> .	Zehaztu gabe
Aurrez ikus daitezkeen <b>kostuak</b> eta finantzaketa- <b>iturriak</b> .	Aurrekontua: 2019 Aurreikuspena - <b>DENDAK BAI ELKARTEA</b> 1.000 euro (334.48102 aurrekontu-partida) 2020-2021
<b>Ekintza-plana</b> , horretan planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak abian jartzeko mekanismoak zehaztuko dira.	Udal-aurrekontua eta diru-laguntza nominatiboak onartzen direnean, hitzarmena egingo da baldintzak finkatzeko, bai egiteari dagokionez, bai laguntza ordaintzeko erakunde onuradunek bete behar dutenari buruz. Bi aldeek onartu eta sinatzen dutenean, ordainduko da hitzarmenean aurrez ikusitako moduan.
<b>Etengabeko jarraipen- eta ebaluazio-araubidea</b> , diru-laguntzen lerro desberdinei aplikatuko zaiena.	- Egindako ekintza-kopurua. - Egindako ekintza bakoitzeko komertzio onuradunen kopurua.
Aurreko plan estrategikoak aztertu ostean, <b>ebaluazioaren emaitzak</b> . Horietan egindako txostenen edukia jakinaraziko da.	Ez dago eskura.

## LS2. Enpresa-proiektuen lehiaketarako diru-laguntza

Nahasitako eskumen- <b>arloak.</b>	GOBERNAMENDUA
Laguntzen <b>sektore</b> hartzaileak.	Ekintzaileak, hirigunean ezartzeko enpresa-proiektua badute eta, bide batez, ekonomi jarduera sortzen laguntzen badute.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>helburuak.</b>	Iurretako hirigunean jarduera berriak ezar daitezzen sustatzea, ekonomia dinamizatzeke.
Aplikatzu lortu nahi diren <b>ondorioak.</b>	Hirigunearen ekonomi susperraldia bultzatzea eta Iurreta gune interesgarri modura finkatzea proiektu, inbertsio eta jarduera berriak erakartzeko.
Egikaritze- <b>epea.</b>	Zehaztu gabe
Aurrez ikus daitezkeen <b>kostuak</b> eta finantzaketa- <b>iturriak.</b>	Aurrekontua: 2019 2020-2021 aurreikuspena: 6.000 euro (433.48000 aurrekontu-partida)
<b>Ekintza-plana</b> , horretan planean identifikatutako diru-laguntzen lerroak abian jartzeko mekanismoak zehaztuko dira.	Alkateak maiatzean urteko deialdia onartuko du. Urriaren 31ra arte eskaerak forman aurkeztuko dira beharrezkoak diren justifikazioekin batera eta alkatetzaren dekretuaren bidez ebatziko da diru-laguntza ematea. Xede horrez, alde aurretik eraturako balorazio-batzordeak txostena egin beharko du.
<b>Etengabeko jarraipen- eta ebaluazio- araubidea</b> , diru-laguntzen lerro desberdinei aplikatuko zaiena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkeztutako proiektuen kopurua</li> <li>- Aurkeztutako proiektuen balorazio-ekonomikoa</li> <li>- Sortutako lanpostuen kopurua.</li> </ul>
Aurreko plan estrategikoak aztertu ostean, <b>ebaluazioaren emaitzak.</b> Horietan egindako txostenen edukia jakinaraziko da.	Ez dago eskura.

### 3. HELBURU ESTRATEGIKOA: Gizarte-ekintza

<b>Helburu estrategikoak</b>	Taldeen eta pertsonen autonomia, babesa eta gizarteratzea sustatzea honako egoeraren batean badaude: mendekotasuna, kalteberatasuna edo babesik ezaren arriskua eta gizarte-baztertea.
<b>Helburu zehatzak</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Mendekotasunaren egoeran edo arriskuan dauden pertsonen autonomia eta arreta bultzatzea, isolamendu- eta bakardade-egoerak saihesteko eta, bide batez, taldea ohiko ingurunean mantentzeko.</li> <li>2. Pertsona eta talde gutxietsien gizarteratzea sustatzea eta gizarte-baztertearen arriskuan bizi diren pertsonen errealitateari buruz gizartean eztabaida sortzea.</li> </ol>
<b>Jarduera-planak dituen diru-laguntzaren lerroak</b>	<p>LS1. Pertsonen autonomia sustatzen duten programak laguntzea.</p> <p>LS2. Gizarteratzea sustatzen duten programak sustatzea.</p>



LS1. Pertsonen autonomia sustatzen duten programak laguntzea.

Nahasitako eskumen- <b>arloak</b> .	GIZARTE-EKINTZA
